

Arte Ederren Museoko bi obra Segoviako erakusketa baten parte izango dira

“Zilar Aroa. Modernitatea Segovian” erakusketa egingo da “El Adelantado” tokiko egunkaria sortu zeneko 120. urteurrena ospatzeko

Gasteiz, 2021eko urriaren 21a. Arabako Arte Ederren Museoko bi lan hautatu dituzte -Dario de Regoyosen *Gaua Segovian* eta Pablo Urangaren *Segoviako gizon batzuk*- "Zilar Aroa. Modernitatea Segovian: El Adelantado eta artea XX. mendearen lehen herenean" erakusketan parte hartzeko. Erakusketa Segoviako Lozoya dorretxean egingo da, Caja Segovia Fundazioaren eraikina eta hiriko eraikin adierazgarrietako bat.

Erakusketaren helburua da XX. mendearen lehen herenean, hiriak modernitatearekin bat egin zuenean, Segoviak bizi izan zuen "zilar aroa" gogora ekartzea, El Adelantado tokiko egunkariaren sorreraren 120. urteurrena dela eta.

Zehazki, 1900 eta 1930 artean izandako arte gertaeretan jartzen du arreta, Segovian inspiratutako artisten eta artearen inguruan talde nortasunaren kontzientzia sortu zuten lehen arte erakusketak egin zirenean.

Pablo Uranga eta Dario de Regoyos margolari arabarrak izan ziren, beste askoren artean, Segoviara joan ziren artistetako bi, paisaiak eta bertako jendeak erakarrita Bi margolarien bertan girotutako hainbat obra dituzte, inguru horietan egin zituzten egonaldien ondorio.

Daniel Zuloaga zeramikaria lehengo San Juan de los Caballeros elizan zegoen eta horrek eragin zuen bere iloba Ignacio Zuloaga margolaria eta Pablo Uranga haren lagun handia maiz joatea hura bisitatzeraz. Hori izan zen Espainiako eta atzerriko artista eta intelektual askok Segovian egin zituzten egonaldien sustatzaile nagusietako bat; izan ere, Gaztelako paisaiak eta pertsonaia herrikoiek inspiratu zituzten eta hiriko eszena artistikoa dinamizatu zuten.